

ADINGABEEN ZENTRUKO HEZITZAILEEN LAN-POLTSA

Epaimahaiak, 2014ko abenduaren 4ko bilkuran, honako **Hautaketa-prozesuaren taxutzea onartu du. Hona hemen nola geratu den:**

OPOSIZIO FASEA

Lehenengo ariketa.- Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa, izangai guztientzat. Ariketa honek bi zati izango ditu. Ariketa gainditzeko zati biak gainditu beharko dira:

A zatia.- Teorikoa, erantsitako gai zerrendari buruzkoa. Aukera anitzeko galdera-sorta idatziz erantzun beharko da, epaimahaiak ezarritako denboran. Gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira.

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundako galdera-kopuruari akatsen herena kenduko zaio ($E = Z - A/3$). Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitza dutenek ez dute zigorrik izango.

Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.

B zatia.- Lanpostuaren ezaugarriekiko egokitasuna neurtzeko proba. Proba hau lanpostuaren ezaugarriekiko eta bete behar diren funtzioekiko egokitasuna neurtzeko hainbat proba psikotekniko egitean datza. Ariketa hau, gehienez ere, **10 puntu** balioetsiko da.

Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.

B zatia, A zatia gainditzen duten izangaiei kalifikatuko zaie soilik.

EUSKARA PROBAK

Euskara probak, **borondatezkoak eta ez baztertzaleak**, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak izango dira. **Honela baloratuko dira euskara probak:**

- **3. Hizkuntza eskakizuna** egiaztatzeagatik: **3 puntu**.

Ondoko izangaiek EZ dute ariketa hau egin beharko:

- a) IVAPek emandako 3. hizkuntza eskakizunaren edo honen baliokidea den edozein egiaztagiriren jabeek. Kasu honetan, ondoren adierazten den bezala egiaztatuko da hizkuntza eskakizuna:

IVAPek, HABEK, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako titulu edo egiaztagiri baten jabe direnek aplikazioan bertan egiaztatu ahal izango dute jabetza hori. Horretarako bere titulua online egiaztatu beharko dute. Sistemak dagokion erregistroan jasotako informazioa egiaztatuko du eta eskaerari gehituko dio.



Aurreko atalean aipatu ez den titulu edo egiaztagiria dutenek, aurreko atalean aipatzen den online egiaztapena egin ez dutenek edo titulua geroago lortzen dutenek, alegatutako agiriaren kopia ekarri beharko dute euskara proba egiten den eguna baino lehenago.

- b) Hizkuntza eskakizuneko azterketa egitetik salbuetsita daudenek, 47/2012 Dekretuaren arabera, ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin dituztelako. Izangai hauek alegatuko beharko dute eskabidean, eta euskara proba egiten den eguna baino lehenago ekarri behar dute egiaztagiriaren kopia, ikasketak amaitu dituzten ikastetxeak edo unibertsitateak emana.

I Eranskinean zerrendatzen dira 3HEaren baliokide diren titulu eta egiaztagiriak eta Hizkuntza Eskakizuneko euskara proba egitetik salbuesteko baldintzak.

LEHIAKETA FASEA

A) Lan-Esperientzia. Gehienez 5 puntu. Honela baloratuko da:

A.1) Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurri judizialak betetzeko heziketa zentru baten Hezitzaile, koordinatzaile, teknikari, gela edo tailer-maisu-maistra edo zuzendaritzako kargu lanetan egindako lana, 0,2 punturekin baloratuko da hilebete bakoitzeko.

A.2) Adingabeen Epaitegiei atxikitako talde tekniko/psikosozialetako hezitzaile lana, 0,1 punturekin baloratuko da hilebete bakoitzeko

A.3) Adingabeak babesteko zentrotan, komunitate terapeutikotan, eguneko zentrotan, pertsona helduen egoitza-zerbitzutan edo neurri judizialak ingurune irekian betearazteko programatan hezitzaile, koordinatzaile, gela edo tailer-maisu-maistra edo zuzendaritzako kargu lanetan egindako lana, 0,1 punturekin baloratuko da hilebete bakoitzeko.

B) B1 gida-baimena izateagatik: Puntu batekin baloratuko da.

MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEKO EPEA ETA MODUA

- Egiaztatzeko epea:** hautagaiek merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte 10 egun naturaleko epean, lehen ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik. Ezin izango dira baloratu ezarritako epearen barruan alegatu eta egiaztatu ez diren merezimendurik, ez eta epearen barruan alegatu baina epez kanpo egiaztatu direnak.

- Merezimenduak egiaztatzeko modua:**

- Lan esperientzia** ondoko bideetako bat baliatuta egiazta daiteke:

Zerbitzuak eman diren enpresak edo Herri Administrazioak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak burutu diren eginkizunak zehaztu behar ditu.

Lan-kontratua, burutu diren eginkizunak ezagutzeko bidea ematen badu, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.

Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren aitortpenaren bidez eta dagokion Ogasun-sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituen. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu; sententziak, eskatzailea egile duten txostenak, e.a.

- B1 gida-baimena** egiaztatuko da baimenaren fotokopia batekin.



BERDINKETAK EBAZTEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak, berdinketak hausteko ondoko irizpideak ezarri ditu:

1. Erantzun zuzen gehien lehenengo ariketaren A zatian.
2. Puntuaziorik altuena lehenengo ariketaren B zatian.
3. Zozketa.

Vitoria-Gasteiz, 2014eko abenduaren 4a.

Alexander Rodríguez López
Epaimahaiko idazkaria

I. ERANSKINA

EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTAGIRIEN ARTEKO BALIOKIDETZAK HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOARI EGOKITUAK

Euskara-egiaztagiriaren baliokidetzari buruzko 297/2010 Dekretuak euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekiko baliokidetzak ezartzen du.

Era honetara, IVAP-ek, HABEk, Osakidetzak, Ertzaintzak, Hezkuntza Sailak, Euskaltzaindiak eta Hizkuntzetako Eskola Ofizialek emandako agiriaren baliokidetzak ezartzen dira eta Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatzen dira. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak eta Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emandako EGA tituluaren balioa ere jasotzen du Dekretuak. Era berean, kontuan hartzen dira 263/1998 Dekretuak, urriaren 6koak, EGA ziurtagiriarako ezartzen dituen baliokidetzak.

Bestalde, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatzen duenaren arabera, ikasketak euskaraz eginda, titulazio akademiko ofizialak lortu dituzten pertsonak ez dute euskararen ezagutza beste bide batez egiaztatu behar izango enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan. Dekretuak ezartzen du, halaber, zein ezagutza maila egiaztatetik salbuesten duen titulazio akademiko bakoitzak. Dagozkion ikasketak amaitu direneko ikastetxe edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da salbuespena.

Enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuei dagokienez, ondoko ziurtagirietako bat dutenek EZ dute egin beharko **1. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatzeko proba:

- IVAP-ek emandako 1. hizkuntza eskakizuna.
- HABEk (Kultura Saila) emandako 1. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 1. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal ikasketen 3. maila gainditua izatea (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Tarteko Maila (1629/2006 Errege Dekretua).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada, curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada eta Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia maila guztietan gainditu bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.
- Teknikari titulua (Lanbide Hezkuntzako Erdi mailako zikloa), 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek EZ dute egin beharko **2. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatzeko proba:

- IVAP-ek emandako 2. hizkuntza eskakizuna.
- HABEk (Kultura Saila) emandako 2. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzako 1. hizkuntza eskakizuna.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakaspostuen 1. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal ikasketen 4. maila gainditua izatea (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Maila Aurreratua (1629/2006 Errege Dekretua).
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza Sailak emandakoa eta 66/2005 Dekretuak araututakoa.
- Batxilergoko titulua, 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.



- Goi mailako teknikari titulua (Lanbide Hezkuntzako goi mailako zikloa), 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek ez dute egin beharko **3. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatzeko proba:

- IVAP-ek emandako 3. hizkuntza eskakizuna.
- HABE (Kultura Saila) emandako 3. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 3. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzako 2. hizkuntza eskakizuna.
- Eusko Jaurlaritzako zein Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailek eta Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emandako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- Euskaltzaindiaren D mailako agiria.
- Labayru Institutuak emandako 3. mailako ziurtagiria. 1982ko irailaren 19koa edo lehenagokoa).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakaspostuen 2. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako 5. maila edo gaitasun maila (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako menderatze operatibo eraginkorreko Gaitasun Maila (C1), 46/2009 Errege Dekretuak arautua.
- Unibertsitate ikasketak, 47/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzen dutenean (banan-banan aztertu beharrekoa). Unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da
- Euskal Filologiaren alorreko Irakasle-diplomatura.
- Bizkaiko edo Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoetan, euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura. 1985ean edo ondoren lortutakoa.
- Donostiako Elizbarrutiaren Irakasle Eskolan eta Eskoriatzako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan, euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura. 1984an edo ondoren lortutakoa.
- Euskal Filologiako lizentziatura, 2008ko apirilaren 16a baino lehenago lortutakoa.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek ez dute egin beharko **4. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatzeko proba:

- IVAP-ek emandako 4. hizkuntza eskakizuna.
- HABE (Kultura Saila) emandako 4. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 4. hizkuntza eskakizuna.
- Unibertsitate ikasketak, 47/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzen dutenean (banan-banan aztertu beharrekoa). Unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

IVAP	1HE	2HE	3HE	4HE
HABE	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
OSAKIDETZA	1HE	2HE	3HE	4HE
ERTZAINZA		1HE Ertzaintza	2HE Ertzaintza	
HEZKUNTZA SAILA		Irakaspostuen 1HE	Irakaspostuen 2HE	
		Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria	EGA	
HIZKUNTZA ESKOLAK	3. maila (antzinako plana)	4. maila (antzinako plana)	Gaitasun maila edo 5.a (antzinako plana)	
	Tarteko maila (plan berria)	Maila aurreratua (plan berria)	C1 Gaitasun maila (plan berria)	
NAFARROAKO GOBERNUA			EGA	
IKASKETA OFIZIALAK	DBH (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Batxilergoa (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Unibertsitate ikasketak (47/2012 Dekretuaren baldintzak C1erako)	Unibertsitate ikasketak (47/2012 Dekretuaren baldintzak C2rako).
	Teknikari titulua (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Goi mailako teknikari titulua (47/2012 Dekretuaren baldintzak)		
EUSKALTZAINDIA			D mailako titulua	
LABAYRU INSTITUTUA			3. maila (1982ko irailaren 19 baino lehenagokoa)	
IPARRALDE EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA-OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE			EGA	
BIZKAIKO EDO GIPUZKOAKO IRAKASLEEN UNIBERTS. ESKOLA PUBLIKOA			Diplomatura euskal adar batean. 1985az geroztik	
ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA EDO DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKOA			Diplomatura euskal adar batean. 1984az geroztik	
IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAK			Euskal Filologia alorreko irakasle-diplomatura	
UNIBERTSITATEA			Euskal Filol. lizentziatura (2008-04-16 baino lehen)	

UNIBERTSITATE TITULUAK 47/2012 Dekretuaren I eta II eranskinetan arautuak (EHAA 74 zk.. 2012ko apirilaren 16koa)

UNIBERTSITATE TITULUAK ETA HE SALBUESTEA (47/2012 Dekretuaren I eranskina)			
Plan berria 1393/2007 Dekretuan araututako titulua			
Euskaraz egindako ikasketen bidez lortutako tituluak	Baldintza gehigarria	Euskara hizkuntzako kreditu espezifikoak	HE
48 ECTS	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS	C1 (3HE)
84 ECTS		12 ECTS	C1 (3HE)
114 ECTS		6 ECTS	C1 (3HE)
144 ECTS			C1 (3HE)
Doktore titulua (tesia euskaraz idatzi eta defendatzea)			C2 (4HE)
Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako gradua			C2 (4HE)
Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua. Euskara "A" hizkuntza.			C2 (4HE)

1. oharra: ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai graduko titulazio bakar batean, bai graduko titulazio bakar bati eta master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.

2. oharra: gradu-amaierako edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

UNIBERTSITATE TITULUAK ETA HE SALBUESTEA (47/2012 Dekretuaren II eranskina)			
Plan zaharra 1393/2007 Dekretua baino lehenagoko tituluak			
DATA 2008ko apirilaz geroztik eskuratutako tituluak izan behar dira			
Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskara hizkuntzako kreditu espezifikoak	HE
52 kreditu	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS	C1 (3HE)
84 kreditu		12 ECTS	C1 (3HE)
114 kreditu		6 ECTS	C1 (3HE)
144 kreditu			C1 (3HE)
Doktore titulua (tesia euskaraz idatzi eta defendatzea)			C2 (4HE)
Euskal Filologiako lizentziatura			C2 (4HE)
Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura. Euskara "A" hizkuntza.			C2 (4HE)

- 1. oharra:** enborrezko, nahitaezko eta hautazko irakasgaietatik eskura daitezke kredituak, eta ezingo dira aukera askeko kredituak baliatu.
- 2. oharra:** ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai 2.2 artikuluan adierazten diren titulazioetako bakar batetik, bai titulazio horretako kredituak eta master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.
- 3. oharra:** karrera-amaierako proiektua edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko zenbatzen direnean.